



## OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud

Dirección de Salud Pública y Adicciones

**Espainiako oliba-oliotan frijitutako onddoetan (*Boletus edulis*) toxina estafilokozioak eragindako intoxikazioari buruzko informazioa.****Arriskua:** Toxina estafilokozikoa

**Alerta:** Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak alerta bat jakinarazi dio Elikadura arloko Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziari (AESAN), Informazioa Azkar Trukatzeako Sistema Koordinatuaren bidez (SCIRI), Espainiatik datorren “El Agricultor” markako oliba-oliotan frijitutako onddoetan toxina estafilokozikoa detektatu delako.

Eskura dagoen informazioarekin, alerta horri lotutako bi intoxikazio-kasuren berri dago. Etxean produktua alerta honetan sartuta dutenei produktua ez kontsumitzea eta saltokian itzultzea gomendatzen zaie.

**Komertzializazioa:**

Produktuaren datuak hauek dira:

- Produktuaren izena: Hongos fritos en aceite de oliva
- Markaren izena: El Agricultor
- Produktuaren itxura: Kristalezko ontzia
- Kontsumo-data lehenetsia: 2026/02/02
- Lote-zenbakia: 2021/02/02
- Unitatearen pisua: 180 gr
- Temperatura: Giro-temperatura

Hona hemen eskuragarri dauden irudiak:





**Ekintzak:**

Informazio hori Elikagaien Alerta Sarera bidali da, Informazioa Azkar Trukatze Sistema Koordinatuaren (SCIRI) bidez, autonomia-erkidegoei helaraz diezaieten, kaltetutako produktua merkaturatze-kanaletatik kendu dela egiaztatzeko.

Kaltetutako loteko produktu-mota hori kontsumitu eta sintomatologiaren bat izanez gero (goragalea, okadak, beherakoa, sabeleko mina edo makalaldia) osasun-zentro batera joatea gomendatzen da.

Etxean alerta honen eraginpean dauden produktuak dituzten pertsoneri gomendatzen zaie ez kontsumitzea eta saltokian itzultzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 25a